

GETXO. 'Ni ez naiz Xabier Montoia' izeneko diskoa aurkeztuko dau Gasteizko musikariak, Getxo antzokian

Xabier Montoiak kontzertua emongo dau gaur, Algortan

Bihar eta etzi, barriz, antzerkia izango da protagonisteia, Antzerkiola Imaginarioagaz

Veronica Muñoz |

Xabier Montoia musikari eza-gunak bere azken beharra aurkeztuko dau gaur, eguena, Algortan, Getxoko Kultur Etxearen eskutik. *Ni ez naiz Xabier Montoia* izeneko diskoa aurkezteko kontzertua emongo dau gasteiztarrek, Getxo antzokian.

Xabier Montoiagaz batera, ganera, beste musikari batzuek bejoko dabe gaurkoan, Algortako aretoan. Agertokian egongo dira Joseba Irazoki, Iñigo eta Igor Telletxea, Fernando Irazoki eta Maikel.

Gaurko musika emonaldi berezia iluntzeko 20:00etan hasiko da, eta sarrerak sei euroan ipini dabez, 4,5 euroan gazte txartelagaz eta erretirauentzat. Kultur Etxean erosi leitekez sarrerak, aldezturik, baita kontzertua hasi baino lehenago be, Algortako antzokian.

Hiru urtean grabetako gela baten sartu barik egon ostean, Xabier Montoiak *Ni ez naiz Xabier Montoia* izeneko diskoa kaleratu barri dau. Diskoa Gasteizko musikariak eginiko behar saronaren emoitza izan da. Musika baltza, pop esperimentala eta teknologia barrien eraginak be nahasten dira disko barri horretan.

Hertzainak eta M-ak taldeetako kide ohiak, horretarako, hainbat kolaborazio jaso dauz. Laguntza horreek, inolongo duda barik, sano baliogarriak



EGUNKARIA
Agertokietara itzuli da Xabier Montoia, hiru urteren ostean.

izan dira diskoaren aberastasunerako.

Bihar eta etzi, antzerkia

Gaur musikearen txanda izango da, eta bihar eta etzi, zezeilaren 14an eta 15ean, antzerkiaz gozetako aukerea eukiko dabe Algortara hurreratzeko diran guztiek. Izan be, Antzerkiola Imaginarioa konpainiak *Mundopolski: erreboltaren ziaboga* izeneko beharra eroango dau Getxo antzokian.

kira. Mina Espazio orain lau urte sortu eben taldearen azkenengo beharra da, eta pailazo bat, neskato bat eta gidari beharrak egiten dauzan beste lagun bat dira pertsonaiak.

Euskerazko saioa bihar emongo dabe, eta gaztelaniazkoa, zapatuan. Emonaldiak iluntzeko 20:00etan hasiko dira. Sarrerearen prezioa 8,5 eurokoa da, eta 6,5 eurokoa, beherapengaz.

AGENDA

GETXO

Zinema: *Hable con ella*, Pedro

Almodovar zuzendariaren pelikulea emongo dabe gaur, Areetako Gran Cinema aretoan, iluntzeko 20:00etan. Sarrerearen prezioa 2, 60 eurokoa da, eta proiektzioaren ostean foruma egingo dabe.

Erakusketea: Euskal Herriko Unibertsidadeko irakasleek eginiko beharrak ikusi ahal izango dira, zezeilaren 22a arte, Algortako Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

Berbaldia: Hegoaldeko herrietako pobrezia ganekeo berbaldia antolatu dau Gizatiaren emakumeen alkarteak gaurko. Arrastiko 18:00etan izango da, Santa Eugenia.

Urteerea mendira: Eleizpe eskaut taldeak txangoa antolatu dau, datorren zezeilaren 23rako, Aitzgorri mendira. Andra Mariko kiroldegitik urtengo dabe, goizeko 9:00etan, eta arrastiko 19:00etarako egongo dira bueltan. Urteeran parte hartzeko prezioa zortzi eurokoa da, eta izena emoteko azken eguna, hilaren 15a. Informetako: 635 71 57 52, eta 652 74 47 62.

Akordioa lortu dabe Udalak eta ostalariek, Aratustek herrian ospatu ahal izateko

V.M. |

Getxoko Udalak, Getxo Enpresa eta Merkataritza alkarteak eta udalerriko ostalariek akordioa lortu dabe, hirurok batera herrian Aratustek ospatu ahal izateko, zezeilaren 28an eta martiaren 1ean.

Hartutako erabagiaren arabera, Getxoko ostalariek mozorroen lehiaketea antolatuko dabe. Bien bitartean, Udala, alde batetik, umeentzako Aratustea antolatzeaz arduratuko da, zezeilaren 28an. Beste alde batetik, herriko kaleak girotzeko beharrak be egingo dauz, martiaren 1ean. Egun horretarako berbera bi antolatuko da-

bez, Algortako San Nikolas plazan eta Areetako metro geltokiko plazaren inguruetan, hurrenez hurren.

Tabernak zarratzeko ordutegiaren ganean erabagia hartzea be lortu dabe. Holan, hirugarren mailako tabernak goizaldeko 04:00etan itxiko dabez, eta besteak, bigarren mailakoak, 02:30ean.

Martiaren 7an eta 8an be tabernak beranduago zarratzeko baimena emon dau Getxoko Udalak. Halandaze, hori aurton bakarrik gertatuko da. Izan be, ordutegi berezia, datorren urtetik aurrera, bakarrik Aratusteko aste-goienean ezarriko dabe, herriko agintariak argi itxi gura izan dabenez.

LABURREAN

GETXO

Uribe kostakoek Algortan egingo dabe torturearen aurkako manifestazioa gaur iluntzean

Gaur, zezeilaren 13a, Torturearen Kontrako Eguna izendauta dago, 1981. urtean torturautu erahil eben Joseba Arregiren gogoan eta, batez be, torturak errealidade gordina izaten jarraitzen daualako, Algortako Torturearen Aurkako Taldeko kideek azaldu dabenez. Hain zuzen be, gaurko torturearen aurkako manifestazioa antolatu dau talde horrek, Algortan. Iluntzeko 20:00etatik aurrera urtengo dau manifestazioak, Telletxe plazatik. Mobilizazioa Uribe kostakoek antolatu dabe.

LEIOA

Maiatzaren 18an egingo dabe margolari gazteen lehiaketea

Leioako Aterpe gazte bulegoak margolari gazteendako lehiaketea antolatu dau, maiatzaren 18rako, laugarren aldiz. Goizeko 8:00etatik aurrera egingo dabe lehiaketea, eta 16 eta 35 urte arteko gazte guztiek hartu leikie parte. 360 eta 810 euro arteko sariak egongo dira. Informetako: 94 480 55 17.

MUNGIA

Magia ikuskizuna eskainiko dau Marsel aztiak zapatuan, Mugire Txokoan, txikienei zuzenduta

Mungia Kultur Etxeak antolatzen dauzan ekitaldien artean, datorren zapatuan, zezeilaren 15ean, Marsel aztiak egongo da Agirre jauregian. Magia ikuskizun ederra eskainiko dau artistek, Mugire Txokoan. Ekitaldia, batez be, herriko txikienei zuzenduta dago, 4 urtetik gorako ume guztiei hain zuzen be. Ikuskizuna arrastiko 19:00etan hasiko da, eta sarreren prezioa euro biko da. Sarrerak, gura ezker, aldezturik be erosi leitekez, Agirre jauregian bertan. Informazio gehiago gura dabenez 94 674 02 35 telefono zenbakira deitu leikie.



GETXOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GETXO

ARKITEKTOEN LAN-BURTSAKO IRAGARKIA

Getxoko Udalak arkitektoen lan-burtsa sortzeko deitu zituen hautapen proben epaimahai kalifikatzaileak, 2003ko urtarilaren 27ko batzarrean, erabaki zuen lehenengo proba, nahitaezkoa eta baztertzaila (egitarauko gai buruzko proba teorikoa) aurtengo otsailaren 20an egitea, goizeko 9:00etan, Fadura UK-n, Makaletako Etorbidean, z/g.